

## **BALIO PROPOSAMENA**

Gure bezeroek nahiko inbertsio handia egin beharko dute gure produktuak lortzeko, baina etorkizunera begira (epe ertainera), aurrezteko eta kutsadura murrizteko modu bat izango da. Gaur egun, etxe eta enpresa orok hileroko ordaintzen dute energiaren erabilera, baina gure produktuak erabiliz gero, hasierako ordainketa baino ez litzateke ordaindu beharrekoa, ondoren etxe eta enpresa bakoitzak bere energia ekoiztuko baitu dohainik. Gainera, gaur egungo energia enpresek oztopoak bakarrik jartzen dituzte eraikin bat autonomo bihurtu nahi bada, beraz, lehenak izango gara aukera hau eskaintzen. Bezeroaren arabera egokituko dugu gure eskaintza. Berritasuna izango da gure balio kualitatibo nagusia.

Jadanik egindako nahiz eraikitzeke dauden eraikinetan jar ditzakegu geure energia iturriak, hauen ingurunera ondoen egokitzen den energia mota jarriko dugu, beti ere hau energia berriztagarria izanik. Produktua bera, garraioa eta instalazioa ere guk egingo dugu, bezeroak ezertaz kezkatu beharrik izan gabe. Gure produktuen prezioa, hauen hautaketaren arabera izango da, prezio finkorik izan gabe.

Erabiliko ditugun energia iturrien artean hauek daude:

- Eguzki energia
- Energia eolikoa
- Energia geotermikoa
- Energia hidraulikoa (eraikina ibai edo urtegi baten ondoan badago)
- Itsas energia (eraikina kostatik oso hurbil badago)
- Eta abar (bezeroaren arabera)